

4. Segurtasuna

4.2. Datu pertsonalen eta identitate digitalaren babesa:

4.2.1. Identitate digitalaren definizioa eta arriskuak

CRUE-REBIUNek egindako eta Mondragon Unibertsitateko Bibliotekak moldatutako materiala

**Segurtasuna.
Datu pertsonalen eta
identitate digitalaren
babesa**

Identitate digitala eta arriskuak




CRUE

REBIUN

Red de Bibliotecas Universitarias

HELBURUAK

Jarduera hau egin ondoren, gaitasun hauek lortu behar zenituzke:



AURKIBIDEA

- Identitate digitala zer den
- Identitate digitalaren ezaugarriak
- Identitate digitalarekin loturiko arriskuak
- Gomendioak
- Gehiago jakiteko...

ZER DA IDENTITATE DIGITALA

Identitate digitala Interneten eta Web 2.0. zerbitzuaren testuinguruan sorturiko kontzeptu bat da. Definizioa:



IDENTITATE DIGITALAREN EZAUGARRIAK

SOZIALA

1

Gure nortasuna Webean —batez ere sare sozialetan— proiektatzen dugun heinean eratzen da.

SUBJEKTIBOA

2

Pertsonen arteko esperientzian oinarrituta dago neurri handi batean, Webean sortzen diren interakzioetatik abiatuta.

KONPOSATUA

3

Ez da pertsona fisikoak ematen dituen datuekin bakarrik eratzen, baizik eta baita hirugarrenen zeharkako informazioekin ere.

**BALIOTSUA ETA
ERREALA**

4

Baliotsua da konfiantza eta auresangarritasun nahikoa sortzen duelako Webean transakzioak egiteko. Erreala da ondorio negatiboak zein positiboak izan ditzakeelako mundu errealean.

**TESTUINGURUAREKIN
LOTUA**

5

Testuinguru edo inguruneen arabera, zenbait identitate egon daitezke aldi berean. Testuinguru oker batean informazioa zabaltzeak ondorio negatiboa izan dezake zure identitate digitalean.

ERREFERENTZIALA

6

Ez du aukerarik ematen pertsona zuzenean ezagutzeko, baizik eta pertsona horri buruz argitaraturiko erreferentziak ezagutzeko.

DINAMIKOA

7

Etengabe aldatzen da, informazio-fluxu etengabearen arabera eratzen baita.

IDENTITATE DIGITALAREN ARRISKUAK. INFORMAZIO PERTSONALA LAPURTZEA

- ★ **Programa kaltegarriak (malware-a):** haren helburu nagusia erabiltzaileen datuak ezabatzea, blokeatzea, aldatzea edo kopiatzea da (birusak, harrak, troiarrak...).
- ★ **Phishing-a:** modu iruzurti batean (posta elektronikoz, telefono-deien bidez...) informazio pertsonala (pasahitzak, kreditu-txartelen datuak...) eskuratzeko metodoa.
- ★ **Pharming-a:** webgune bat beste webgune faltsu batera bideratzeko praktika iruzurtia. Webgune faltsu hori antzekoa izaten da itxuraz, eta software kaltegarria instalatzen du bisitariaren ordenagailuan, edo erabiltzailearen datu pertsonalak arakatzen ditu.

IDENTITATE DIGITALAREN ARRISKUAK.

IDENTITATEA ALDATZEA

- ★ **Identitate digitala ordezkatzea:** norbaitek asmo txarrez beste pertsona baten identitatea bere egin eta haren izenean jarduten duenean gertatzen da.
- ★ **Pribatutasunaren aurkako mehatxuak:** hedabide sozialetan parte hartzean, argitaratzen duzun informazioaren zabalkundearen gaineko kontrola galtzen duzu, eta beste pertsona batzuek era desegokian erabil dezakete.
- ★ **Online irudiaren eta ospearen aurkako erasoak:** Interneten, ohorearen edo ospearen aurkako erasoak sufritzeko arriskua handitzen da, zeren eta edukien zabalkundearen biraltasunak edukien jabeak bere informazio pertsonala kontrolatzea zailtzen baitu.

GOMENDIOAK



Zure informazio pertsonalaren gainean ahalik eta kontrol handiena izateko, segurtasun- eta pribatutasun-aukerak ongi konfiguratzeko eta berrikusten ikasi behar duzu.

- Informazioa argitaratu aurretik, aztertu informazio hori:
 - Kontuz bereziki Interneten argitaratzen dituzun argazki edo bideoekin, fisikoki identifikatzen baitzaituzte.
 - Mugatu kokalekuari buruzko datuen erabilera behar-beharrezko aplikazioetara.
 - Egokitu zure informazio pertsonalaren zabalkundea beste pertsona batzuekiko harreman motara.



GOMENDIOAK



- Ongi konfiguratu pribatutasun- eta segurtasun-parametroak.
- Behar bezala itxi zure profil edo zerbitzuaren saioa, amaitzean.
- Berrikusi zure profilak aldian behin.

- Eman sarbidea soilik hirugarrenen konfiantzazko aplikazioei:
 - Egiaztatu al bait hobekien nor den identitate-datuak erabiltzeko baimena ematen diozun aplikazioaren titularra, zer datu behar dituen eta zertarako.
 - Mugatu sarbidea ezinbesteko datuetara soilik.

GEHIAGO JAKITEKO...

Kontsultatu

[Online identitatearen eta ospearen gida](#)ko 2. eta 4. kapituluak.

Kontsultatu ELGEren dokumentu hau:

[At a Crossroads: Personhood and Digital Identity in the Information Society - OECD.org](#)



**Mondragon
Unibertsitatea**

Biblioteka

Zalantzarik baduzu, galdetu zure [bibliotekan](#):



**Basque Culinary Center
Biblioteka**

Juan Abelino Barriola pasealekua, 101
20009, Donostia, Gipuzkoa.
T. 943574514
biblioteca@bculinary.com

**Enpresa Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Ibarra Zelaia, 2
20560, Oñati, Gipuzkoa.
T. 943718009
biblioteca.enpresagintza@mondragon.edu

**Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Biblioteka**

Dorleta, z/g.
20540, Eskoriatza, Gipuzkoa.
T. 943714157
biblioteca.huhezi@mondragon.edu

**Goi Eskola Politeknikoa
Biblioteka**

Campus Iturripe. Loramendi, 4. 20500 Arrasate – Mondragon, Gipuzkoa.
Campus Orona Ideo. Fundazioa eraikuntza, Jauregi Bailara, z/g. 20120 Hernani, Gipuzkoa.
T. 943794700
biblioteca.mgep@mondragon.edu